

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 11/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, irailaren 22koa. Enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko Funtsetik eratorritako eragiketei eta egintzei aplikagarri zaizkien zerga salbuespenak onestea

COVID-19ak (Osasunaren Mundu Erakundeak pandemia deklaratu zuen) eragindako mundu mailako osasun krisia gertatu zenetik, Arabako Foru Aldundiak hainbat neurri onartu ditu krisi horrek eragindako kalte pertsonal eta ekonomikoak ahal den neurrian mugatzeko.

Neurrien artean, zerga arloan hartutakoak nabarmendu behar dira, Euskal Autonomia Erki-degoko Autonomia Estatutuak eta Ekonomia Itunaren Legeak lurralde historikoei esleitutako eskumenen indarrez.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honek jarraipena ematen die COVID-19aren ondorioz Araban onetsi diren zerga aldaketei.

Zehazki, salbuespen bat ezartzen du, enplegua babesteko premiazko neurriei buruzko uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan 11. paragrafoa aplikatuz zuzenean edo zeharka eratorritako eragiketak eta egintzak barne hartzen dituena. Horren bidez, funts bat sortzen da COVID-19aren pandemiaren ondorioz aldi baterako zailtasun larriak dituzten enpresa estrategikoen, ez-finantzarioen, kaudimenari laguntzeko.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 8. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hauxe

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko Funtsa

1. Ekonomia suspertzeko eta enplegua sortzeko premiazko neurriei buruzko uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua aplikatuz zuzenean edo zeharka eratorritako ondare eskualdaketa, sozietate eragiketa eta egintza guztiak, bai eta 2. artikuluan aipatzen den funtsaren kontura partaidetutako enpresak kapitalizatze eta/edo finantza eta ondare berregituratzeko egiten diren funts ekarpenak edo kapital handitzeak ere salbuetsita egongo dira ordaintzetik Toki Erakundeak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak jasotako Arabako Foru Aldundiaren edo toki erakundeen edozein zerga.

2. Aurreko 1. apartatuan toki erakundeei buruz xedatutakoak ez die konpentsazio ekonomikorik ekarriko Toki Erakundeak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauan aipatzen diren erakundeei.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuari ahalmena ematen zaie Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzaten.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen berri emango zaie Arabako Batzar Nagusiei, indarrean dagoen araudiari jarraituz izapidetzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 22a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA